

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 241. zkia. 2016ko urtarrila

**Aurpegi berria
Ermuko antzerkiaren gidaritzan**

Eskolabarri



Eskola
Jasagarria
Ziurtagiria



Certificado
de Escuela
Sostenible

Ikastetxea

Bizitzen ikasteko, haurrentzat egina!



**HURBILDU ZAITEZ GURE PROIEKTUA
EZAGUTZERA!
BISITA GIDATUA**

Urtarrilaren 29an, 9:30etik 11:00etara; SAN BLAS

(Santa Ana – Lehen Hezkuntza) Hurbiltzerik ez baduzu, deitu eta beste egun batean elkartuko gara

**MATRIKULAZIOA
ZABALIK**

**Urtarrilaren 25etik
otsailaren 5era**

KONTAKTUA

**943 17 71 15
eskola@eskolabarri.es**

EUSKARAN eta gure herriko ohituretan oinarritutako hizkuntza proiektua

Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria (IRAES) / Eskolaz kanpoko ekintzak

Jantokia 2 urteko gelatik aurrera

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak izendatutako Proiektu Eleanitz-Berriztatzaileak

Laguntza Gela / Psikopedagogia Orientazio Saila

Eskolamendi / Ingelesa 3 urtetik aurrera

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Paul Bustindui,
Estibalitz González,
Ane Saéz eta
Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Asier Ibaibarriaga.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Asier Ibaibarriaga,
Patxi López,
Valentin Mugarza,
San Pelayo eskola
eta Nahia Rojo.

ARGAZKIAK:

Paul Bustindui,
Camerata XXI,
Estibalitz González,
Aitor Hernández,
Asier Ibaibarriaga,
Josep Molina,
Valentin Mugarza,
Roberto Ordax,
San Pelayo eskola,
Nahia Rojo,
Edorta Unamuno,
URNWA eta
Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-21 3/1994.


Drogeteniturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

ETXE SAGUA *Ratón casero Mus domesticus*

Sagu txiki, sagu polit! ez urten hortik zuloxtotik! katutxue etorriko da./ Ez nau jango! Jango zaittu! Ez nau jango! Jango zaittu! Sagutxuek zuloxtotik urte eban eta zer eitzon? Jannnn! Umeekin jolasteko erabili izan da aurreko kantutxoa, baina domesticus izena eman arren ere, benetako saguari orokorrean ez zaio estimazio handirik erakusten. Ikusi, lantzean behin ikusten da; sentitu, gehiago eta gauean endemas, alde batera eta bestera geratu barik perrots baten dabilenean. Eta etxe bueltan ibili dela ezagun-ezagun izaten da paper, jateko eta arropetan egiten dituen triskantzengatik, bere gorotz txikien lorratzagatik edota, materialik preziatuenak eskatimatu barik, prestatzen dakien habia gozoengatik.



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Agur Munduko Ahotsak	BOTEPRONTOAN16 Miguel Pérez
ELKARRIZKETA5-7 Roberto Ordax, musikaria	KIROLZALE17 Aitor Elordi
MALLABIAN ZER?8-9 Garazi Mugarza, Lekore aldizkaria	IRITZIA18 Nola eta noiz hitz egin sexualitateaz seme-alabekin?
ERMUAN ZER10 Alain Kortazar, aktorea	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
ESKOLEN TXOKOA11 San Pelayo eskolako berriak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
HARTZA EGUNA12-13 Umeentzako denborapasak	KALEKO INKESTA21 Hiribili proiektua ezagutzen duzu?
MOTZEAN.....14-15 D ereduaren aldeko kanpaina	AGENDA21 Otsaileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

2013an ekin genion “Munduko Ahotsak” atalari eta mapamundiko hamaika herrialdetako lagunak ekarri ditugu orri hauetara. Eskerrik asko guzti-guztiori, bihotzez!

Hurrengo aletik aurrera “Guretik Mundura” sail berriari emango diogu hasiera, gure diasporan dagoen jendeari ahotsa emango diena.



MUNDUKO AHOTSAK atalean agertu dira:

Elena Peirano, Turin (Italia)
 Alejandro Martínez, Mexiko Hiria (Mexiko)
 Mihaela Zenik, Timisoara (Errumania)
 Osvaldo Guirola, Matanzas (Kuba)
 Susi Guzmán, San Carlos (Ekuador)
 Thomas O'Callagan, Belfast (Irlanda)
 Kely Caetana Magalhaes, Boa Vista (Brasil)
 Abdelhay El Idrissi, Rif (Maroko)
 Aida Estrada, Palmira (Kolonbia)
 Gabriela Buchicchio, Buenos Aires (Argentina)
 Carlos Pommier, Santa Cruz (Bolivia)
 Candy Fernández, Santa Cruz de la Sierra (Bolivia)
 Falilou Diop, San Luis (Senegal)
 Irina Badea, Tirgoviste (Errumania)
 Juan Carlos Colina, La Habana (Kuba)
 Stefania Atzori, Sardinia (Italia)

Jens Christian Forner Vallés, Frisia (Alemania)
 Jhorling Flores, Somoto Madriz (Nikaragua)
 Sami Kechairi, Aljer (Aljeria)
 Maribel Núñez, La Vega (Dominikar Errepublikak)
 Lansina Samake, Bamako (Mali)
 Purificación Olinga, Micomeseng (Ekuatore Ginea)
 Félix León, La Vega (Dominikar Errepublikak)
 Madiagne Diagne, Louga (Senegal)
 Yoli Guzmán eta Richard Morán, Quevedo (Ekuador)
 Yanet López, Sagua La Grande (Kuba)
 Said Hamideddine, Rabat (Maroko)
 Alejandro Massie, Rio Muni (Ekuatore Ginea)
 Pamela Janice, Middletown CT (AEB)
 Khady Samb, Bargny (Senegal)
 José Manuel Belén, Consuelo (Dominikar Errepublikak)
 Victoria Zola, Dnepropetrovsk (Ukrainia)
 Juan Carlos Pommier, Santa Cruz (Bolivia)

SAN ANTONIO
 OKINDEGIA
 GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
 Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
 1968tik Ermua euskalduntzen



Roberto Ordax, musikaria:

“Oraindik ere askok uste dute musika hobbya dela, ez ogibidea”

Aitak eman zizkion lehen solfeo eskolak umetan, eta harrezkero musikari lotuta egon da Roberto Ordax ermuarra: Oboeko Goi Mailako gradua atera zuen Donostiako Kontserbatorioan, Baionan bi urte eman zituen musika tresna hura perfektionatzen eta Alemaniako Karlsruhe hiriko Musikschulera joan zen lau urtez ikastera. Ikasketa-ibilbide oparo honekartzelako Liceo Akademiara eraman zuen azkenekoz, duela ia hamarkada bat, eta hiri horretan jarraitzen du ordutik, musikaz bizitzen eta bizirauten. Bere lanarekin asebeteta badago ere, onartzen du krisiak gogor astindu dituela musikariak. Gabonetan gurean egon zen bisitan.

- *Bartzelonan bizi eta lan egiten duzu. Zein orkestrarekin aritzen zara?*

Sei edo zazpi orkestrekin kolaboratu ohi dut, *freelance* moduan, ez daukadalako plaza finkorik. Tarragonako Orquestra Camera Musicae-rekin jotzen dut sarrien, eta urtean 12 edo 13 produkzio egiten ditugu.

- *Musika ogibide, lasaitasunez bizi daiteke?*

Musikaz ederto bizi izan da urte askoan, baina nik ez ditut garai horiek ezagutu. Bartzelonara heldu nintzeanean hasi zen krisia eta gaur egun Udalek oso berandu ordaintzen dute, diru-laguntzak murrizten doaz... Orkestren mundua oso txarto dago, eta 6 hilabete baino gehiago itxaron behar da batzuetan kobratzeko. Horregatik, jotzeaz gain, musika eskola batean klaseak ematen hasi nintzen duela bi urte. Hilero-hilero hipoteka ordaintzeko diru-sarrerara finkoa behar duzu, bestela...

- *Jendea arraroa egiten zaio zu musikari profesionala izatea?*

Niretzat gauza normala da, eta Bartzelonan ezagutzen dudana ia jende gehiena bizi da musikaz modu batera edo bestera: jotzen, klaseak ematen... Baina egia da herrialde honetan askok uste duela oraindik musika hobbia dela, ez ogibidea. Askok



galdetzen didate: "Musikaria zara, bai, baina zertan egiten duzu lan?"

- *Bestalde, oboea ez da ohiko instrumentua. Teknika oso konplikatu da?*

Nahikoa, bai, batez ere soinu ateratzea lortzen duzunera arte. Denbora behar da ikasteko.

- *Zergatik aukeratu zenuen?*

Ez dakit erantzuten, ezberdina zelako pentsatzen dut. Baina gaur egun dakidan guztia jakingo banu, beharbada ez nuke berriro aukeratuko. Hasiera oso gogorra da. Urte batzuk igaro arte jasangaitza da, kontrolatzen ez denean oso soinu desatsegina sortzen duelako,

oso nasala, dultzainaren antzerakoa. Galdetu nire bizi-lagune!

- *Zenbat urte behar dira musika tresna bat menderatzeko?*

Nik, gaur egun ere, ikasten jarraitzen dut. Izan ere, notak badakizkizu, baina jotzeko hamaika modu daude, eta asko landu behar da. Hori da musikari baten bizitza: ikastea eta sasoiaren egotea edozein momentuan jo ahal izateko. Zenbat eta gehiago jo, orduan eta hobeto ulertzen duzu musika tresna.

- *Gehienek ez dakite horrenbesteko lana dagoenik instrumentu baten atzean, ezta?*

Ez, batez ere herri txikietan. Herri handietan euren orkestratxoak dituzte eta musika ageriago dago, gertuago. Hemen jendeak ez daki musikari akademiko baten atzean 25 edo 30 urteko formazioa dagoela.

- *Lan eskerga horren trukean, zer? Konpentsatuta dago?*

Neurri handi batean, zortea araberago dago konpentsatuta. Eta entxufeen araberago, jakina! Baina ona izan behar duzu, oso mundu elitista baita, oso kompetitiboa: zuk ez baduzu ondo egiten, ondokoak egingo du zure partez. Konpetentzia handia dago, batez ere ez baduzu plaza finkorik orkestra batean. Gaur lana duzu, eta beharbada bihar ez, oboea zuk baino hobeto jotzen duen norbait agertzen bada.

- *Onena eman beharra, orduan. Zure buruarekin kritikoa zara?*

Bai, topera. Musikari baten bere denboraren %90 bakarrik igarotzen du, ikasten eta lan indibiduala egiten. Orduan, ez bazara kritikoa, ez badiozu zure buruari gero eta gehiago eskatzen, ez zara inora heltzen

"Musikaren mundua oso elitista eta konpetitiboa da"



Drogetenituri, 241 zkia.




ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

nire ustez. Ni oso kritikoa naiz nire buruarekin eta besteenarekin ere.

- **Eta orokorrean, gustura geratzen zara egindako lanarekin?**

Bai, baina musikaren munduan, ogibide guztietan bezala, ganorarik gabeko gauzak ere egin behar izaten dira noiz edo noiz. Lotsatzeko modukoak. Batzuk ausartu egiten dira bere ahalmenetatik kanpo dauden emanaldiak eskaintzen, musikari eskasekin, amateurrekin... eta horrelakotan asko sufritzen dut. Eta beharbada, publikoa aditua ez bada, ez du igartzen eta poz-pozik irteten da!

- **Eman dituzun kontzertuen artean, zein aipatuko zenuke?**

Gabonak baino lehen Liceoan egin nuena, Raphaelekin. Ez kalitateagatik, baizik eta nire amaren poztasuna ikusteagatik.

- **Egunero entseatzeari beharrezkoa duzu?**

Ez, baina begira, nik orain 12 edo 14 egun daromatzen jo barik, eta jotzen hasi beharko banu, 3 minututan lehertuta egongo nintzateke. Oboea oso fisikoa da; ez du ematen, txikitxo delako, baina *kaña* bat dauka, ahoan sartzen dena, eta horrek eskatzen dizu aho inguruko muskulatura guztia sasoiari izatea.

- **Zer da *kaña* bat?**

Egurrezko plakatzu bat da eta haren bibrazioak ahalbidetzen du oboeari soinua

“Oboea oso fisikoa da, sasoiari egotea eskatzen du”

ateratzea. Oboeak bi *kaña* erabiltzen ditu, *Arundo donax* espezieko banbuz eginak, eta nik eskuz lantzen ditut, ebanistek erabiltzen dituzten labanak erabilia. Makinatxo berezi batekin egiten nituen sasoi batean, eta erosteko aukera ere badago, baina oso garestiak dira.

- **Eta nola ikusten duzu etorkizuna?**

Ez dakit, zaila da esatea. Honetan jarraitu nahiko nuke, baina ez dago nire esku.

Kataluniako Musika Goi Eskolatik 800 edo 700 musikari irteten dira urtero, eta ez daukate non jo, ez dagoelako guztiontzako lekurik. Eta hala ere, musikariak eraikitzen jarraitzen dugu, tartean nik neuk ere, musika eskolan. Orduan, zer gertatzen da? Bada egungo joera dela orkestra berriak egitea, musiko berriez aprobetxatzen direnak, huskeria ordaintzen. Horrek ez dio mesederik egiten musikari, baina gure mundua ez dago araututa, ez dugu sindikataturik... Koadrila bat gara, gure artean borrokan, zeinek egingo duen merkeen ikusteko!

- **Gabonetan etorri zara Ermuan. Deskonektatzea ondo etorri zaizu?**

Bai, *erresetatzea* beharrezkoa da noizbehinka. Baina aldi berean, Ermuan 15 egun igaro eta gero, Bartzelonara bueltatu behar naizela sentitzen dut, nor naizen oroitu, nire errutinak hartu eta mundu musikalera bueltatu.

Dorleta Vidal




AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

hamburguesería
TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

aral97.com
aral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

aral@aral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Garazi Mugarza, *Lekore* aldizkariko sortzailea:

“Literatura sentimendu asko kanalizatzen dituen tresna da”

Betidanik esan ohi du aitarengandik datorkiola idaztearekiko pasioa. Literatura txapelketa ugari ditu irabaziak. Momentuan erizaintzako 3. maila egiten ari den bitartean *Lekore* magazina sortu du beste 7 idazlerekin batera. Mallabiko luma gazteak azken proiektu honen berri azaltzen digu

- 8 idazle gazteak sortutako euskal literatur aldizkaria. Gipuzkoarrak gehienak.

Oñatiar bat, azpeitiar bat, zarauztar bi, oriotar bat eta urretxuar bat dira gipuzkoarrak direnak. Gero Bilboko bat eta ni bizkaitarrak.

- Kostaldean sortutako gazte batzuek oinarri, nolakoa izan da ibilbidea ltu bandaren sorreratik *Lekore*ren sorreraraino?

2013n elkartu ziren bi zarauztar eta oriotar bat. Hiruiek zeukatenez literatur zalelasuna ltu banda sortu zuten bertan. *Lu* magazine egin zituzten. Gerora, Urruzuno lehiaketa bitartez eta udalekuekin joan ginen besteok batzen. Bertan hasi ginen pentsatzen poesia ekitaldiak ematearen ideia. Momentu horretan aurkeztu genuen *ltuskizuna* izeneko emanaldia, non musika, dantza eta poema errezitaldiak batzen genituen. Testuak zuzenean igortzerakoan zailagoak dira ulertzeko, behin bakarrik ulertu ahal direlako. Horregatik, jendearen eskakizun-

nez, paperean argitaratzen hasi ginen *ltuskizuneko* testuak. Hortxe sortu zen aldizkari formal bat ateratzearen ideia: *Lekorea*.

- Durangoko Azokan aurkeztu zenuten *Lekore*ren 0 zenbakia. Noizko lehen ale ofiziala?

Gure asmoa da urtean hiru ale ateratzea, abenduan Durangoko Azokarekin batera, apirilean eta irailean. 0 ale hau urte osoan egingo dugunaren erakustaldi bat bezala aurkeztzen dugu. Lehen zenbakia apiril bueltarako egongo da kalean.

- Zer topatu dezake irakurleak *Lekore*ekin?

Eredu den 0 ale hau gehienbat prosaz osotzen da. Berreskuratutako ipuinak, poemak, erreportajeak, itzulpenak eta *editurialak*, (ltu bandarekin egindako hitz-jokoa). Azken honetan gure magazinarekiko ikuspegia azaltzen dugu.

- Ze irakurle profili zuzentzen diozue?

Irakurri nahi duen guztiak aukera dauka irakurtzeko. Bai gazte bai nagusi.



- Nondik *Lekore* izena?

Asko pentsatu gabe jarri genion izena. Nik lehenengo aldiz Sarrionandiari entzun nion hitza da. Kanpoan da bere esanahia. Hemendik *lekore*, hemendik kanpo. Lotura aurkitzen genion gure proiektuarekin. Durangon ere azokatik kanpo gelditu ginen. Idazle mundu hortik kanpo jardun nahi dugu. Azken finean guk ez dugu nahi idazle estereotipatuaren etiketa.

- Ze ildotik eraman nahi duzue aldizkaria etorkizuneari?

Ez dakigu oraindik ze bide hartu. Gu ez gatoz Pott Bandaren lekua hartzera. Asmoa betidanik izan da gure testuak argitaratzearena eta ahotsa ematearena beste gazteei ze beste kolabo-

ratzaile batzuk ere baitaude *Lekore*ren. Inon erreleborik hartu barik gure bidea egitea da asmoa.

- Bestalde gaur egun euskarri digitaletik aldentzea eta paperera jotzea apustu handia da. Zer dela eta paperean?

Egia da gaur egun baliabide asko daudela Internet bidez lortu daitezenez, baina gu ohituta egon gara beti paperean irakurtzera. Internet funtsean azaleko irakurketa baino ez da. Papelak errepikatze eta irakurketa sakonago bat egiteko aukera ematen digu ostera. Gainera, beste balio erantsi bat dauka formatu fisikoak edonon gorde daitekeelako. Ez genuen pentsatu sarean argitaratzea, hasieratik paperearen ideia izan dugu.

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

- *Webgunean eta sare sozialetan ere bazaudete. Euskarri digitala lantzeko asmorik etorkizunari begira?*

Gehigarri modura baliteke. Errezitaldien osagarri modura ere erabili dezakegu, baina ez dut uste pape-reko oinarri hori apurtu dezakeenik.

- *Harpidetza sistema bat martxan jartzeko asmoa daukazue?*

Harpidetza sistema bat prestatuko dugu, baina oraindik tramiteak betetzen gabiltza. Azken finean, ale pilotu honen helburua zen gure aldizkarian eskainiko ditugun edukien aurkezpen bat egitea. Orain

errezitaldi batzuk ere egingo ditugu proiektuaren berri emateko. Laster egongo da martxan sistema, baina oraindik jende askok ez du gure berri.

- *Kanpotik jendeak arreta askorik jartzen ez dion gai bat den arren, literatura errentagarria da gaur egun idazleentzat?*

Ez dut uste. Literaturatik gaur egun gutxi batzuk baino ez dira bizi. Agian Harkaitz Cano eta Bernardo Atxaga.

- *Literatura garai latza bizitzen ari da XXI. mendean. Zer dela eta doa aldenitzen gizartea literaturatik?*

Kulturak ez dauka hainbeste interes gaur egun.

“Literaturatik bizitzea ez da posible gaur egun”

Norberak ez du horren inguruan ezer bilatu nahi. Azkenean literatura da kalte-tuta.

- *Krisi ekonomikoaren ondorioz kultura arloa oso ahulduta gelditu da. Zure ustez, interesa pizterik ba al dago?*

Garrantzia ematea da klabe nagusia. Giltza izango litzateke umetatik sustatzea kultura. Asko jaitsi da kulturarekiko interesa. Orain dela hamarkada batzuk askoz indartuagoa zegoen.

- *Funtsezkoa da erakunde eta instituzioen inplikazioa honelako proiektu bat aurrera eraman ahal izateko?*

Guk ez genuen pentsatu inoiz argialetxe batera bidaltzea. Guk Hiru Damatxo ideia faktoriara bidali genuen eta beraiek diseinatu ziguten inprentara eraman aurretik. Azkenean gure helburua beti izan da gure erara egitea gauzak *Lekoren*. Gogoia izan ezker, ekimenak aurrera eraman ahal dira.

- *Behar besteko ahalegi-na egiten dira kultur ekimenak aurrera ateratzeko?*

Interesa badago erakundeen partetik aurrera eramateko kultur ekimenak.

- *Sarrik zioen “Arteak ez du bizitzeko ematen. Arteak ezkurak ematen ditu”. Zer ematen dizue idazleoi literaturak?*

Bat gatoz ltu bandako kide denak, guretzat literatura sentimendu asko kanalizatzen dituen tresna da. Gure barnean sentitzen dugun hori islatzeko erreminta. Oso gauza berezia iruditzen zait, aldendu ezin garen bizio bat izango balitz bezala. Gure burua hobeto ezagutzeko ere balio digu literaturak.

- *Gordetzerik ba al dago oraindik altxor hau?*

Baietz uste dut. Idazle asko daude, eta afizionatu asko ari dira murgiltzen. Errekurtsoak ere ugariak dira. Etorkizuna oparoa izango da, beti ere irakurleengana-ko interesaren sugarra mantentzen badugu.

Paul Bustindui



**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

ZK

**ZUZENBIDE
KONTUAK**

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

OINAK

**LEIRE MAYORA
PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

MUGA

KIKIROLAK

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Alain Kortazar, aktorea eta Ermuko antzerki taldeko zuzendaria:

"Antzerki ikasleekin hasi orduko, makina bat ideia sortzen ari zaizkit"

17 urte zituela motxila hartu eta Madril aldera joatea erabaki zuen ermuarra. Betidanik aktore izan nahi zuen eta, zorionez, bere ametsa betetzea lortu du. Makina bat lan egin behar izan ditu urte hauetan guztietan, oso gorabeheratsua den lanbidea izaki. Azken 3 urteak Buenos Airesen eman ditu, Argentinan, eta oso gertuko lagun baten heriotzak Ermura ekarri du berriz. Momentuz gurean geratzea erabaki du.

- Aktore izateko grina nondik datorkizu?

Nire osaba Cosme aktorea izan zen, nire ama, nire izeba. Etxean antzerki mundua beti oso hurbiletik bizi izan dugu. Nik umetatik oso argi neukan aktorea izan nahi nuela.

- Nola hasi zinen?

12 urte nituen eta Geroa taldeak antzerki tailerra antolatatu zuen Ermuan. Aurreneko egunean eman nuen izena eta halaxe hasi nintzen. 17 urte zituela, Susana Toscano ezagutu nuen eta Madrilera joatea erabaki nuen. Geroztik ez naiz geratu.

- Denetarik egitea egokitu-zitzaizun...

Bai, hala da. Animazioak, telebistarako lantxo batzuk, go-go lanak... lanbide hau oso gogorra eta gorabeheratsua da. Zortea ere parean izan behar duzu. Telebistan agertzen ez bazara, badirudi ez zarela lanean ari. Adibidez, Carmen Machi aktore-sak 30 urtetik gora pasa zituen Madrileko Teatro Na-

zionalean emanaldiak egiten gaur egun daukan ospea izan baino lehen.

- Zein lanetan sentitzen zara erosoan?

Nik zuzeneko emanaldietan gozatzen dut gehien. Kale antzerki asko egitea egokitu zait eta entzulea gertu sentitzea eta berarengana iristea, hortan gozatzen dut. Hala ere, lan berriek ere erakartzen naute. Adibidez, azken 3 urteak Argentinan eman ditut eta laburmetraiak egin ditut aurreneko aldiz. Askok gozatu dut.

- Zer eman dizu antzerkiak?

Antzerkiak nahi nuen ogibidea izateko aukera eskaini dit. Berari esker beste pertsona baten paperetik gauzak azaltzea eta publikoarengana iristea itzela da.

- Urte hauetan egin dituzun lanen artean berezikiak?

Anda jaleoko Bernarda Alba papera edo Juan Carlos Colinarekin egin nuen *El Quijote* lanak oso kuttunak dira niretzat. Horrez gain,



oso lan berezia eta ausarta izan zelako *Monólogo de la ETA* aipatuko nuke. Pertsonaia oso berezia landu behar izan nuen berez gaiak daukan garrantzia eta pisua kontuan izanda.

- Juan Carlos Colina aipatuz duzu. Bere heriotzak harrapatu gaitu...

Oraindik ezin dut sinetsi. Nire anaia balitz bezala maite nuen eta bere sendia nire bigarren sendia zen. Ez dut gaixo zela ikusi, ez dut agurtzeko aukerarik izan eta oraindik ez dut joan zaigula barnerratu.

- Berak utzitako antzerki ondareari helduko diozu....

Ermura etorri eta bere omenaldia prestatzen ari girela, bere ikasle ohi batzuk eta haien zenbait guraso hurbildu zitzaizkidan Juan Carlosen urteetan zuzendu zuen antzerki taldea gidatzen au-

sartuko ote nintzen galdezka. Baietza eman dut eta urtarilean abiatzeko asmoa dut.

- Urte askotako lana dago hor...

Ikasle batzuk 10 urte ere bazeramatzaten Juan Carlosekin. Irakastea oso gustuko dut eta beraiekin hasi orduko makina bat ideia sortzen ari zaizkit. Oso ilusionatuta nago, egia esan.

- Beraz Ermuan geratuko zara...

Bai. Argentinatik etorri eta martxora arte geldialdia neukan, baina orain burubelarri antzerki taldearekin hasiko naiz.

- Antzerki taldeaz gain, beste erronkarik 2016rako?

Zerbait idatzita daukat eta baditut buruan asmoak, baina aurreneko erronka antzerki taldea zuzentzea izango da. Gero gerokoak.

Asier Ibaibarriaga

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [g]

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Euskaraz blai

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen ikastetxean. Ekitaldi eder batek ikastetxe osoa -3 urtekoetatik 2. Batxilergora arte-, bildu gintuen. Euskal kanta eta dantzek, bertsoek eta antzerkiek jaialdia alaitu zuten. Horretan kurtso guztiek parte hartu zuten. Eguna biritzeko, 1. batxilergoko ikasleek herri-kirol lehiaketak antolatu zituzten DBHko ikasleentzako: pilota, txingak, lokotsak eta sokatira txapelketak izan ziren. Aldi berean, 2. batxilergoko ikasleek euskal dantza ikastaro bat antolatu zuten LHko ikaskide gazteagoentzako.



Ermutik Durangoko Azokara!



Aste berean egutegian gorritz borobilduta dagoen euskal literatura bultzatzeko ekitaldi galduezina eta eskolan jada

tradizioa den Durangoko Azoka bisitatu zuten 2. DBHko ikasleek. Han, azokaren mapa eskuan zutelarik, gure mutil eta neskek gynkana bat osatu zuten, edo behintzat saiatu ziren, hainbeste eskola batzen duen ekitaldian zaila da-eta! Hala ere, euskal giroaz blaitu ginen eta batzuek irratirako, airean eta zuzenean, galderak ere erantzun zituzten.

Europa, gure helmuga



2014/2015 ikasturtean hasiera izan zuen Erasmus+ proiektuaren hurrengo egonaldiak izan dira. Irailean aste batez Alemania, Austria, Eslovakia eta Hungariako ikasle eta irakasleak izan genituen Ermua eta bere inguruak ezagutzen, bisita horretan elkarlana eta hizkuntzak jorratu ziren. Azaroan Eslobakiako ikastetxeari harrera egitea tokatu zitzaion eta gure hainbat ikaslek hara egin zuten hegan. Aste batez BanskaStiavnicka herrian izan ziren, hango kulturaz eta Erasmus+ proiektuaren beste herrialdeen kulturez ikasiz eta bustiz. Eslobakiarrez *dobry den!* esaten dute *egun on* eta halan agurtzen omen zuten hango meatzari ausartek lurpean sartzen zirenean urre eta zilarrez osatutako harrien bila. Hor ikasi baikeuen Europaren bihotzean dagoen herri txiki horren historia luzea eta bitxia: Austro-Hungariar Inperioaren metal hornitzaile nagusia, ikerlari eta asmatzaileen etxe eta gure kontinentearen hamaika guden lekuko.



CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14



Montis DQ Mouth



-%50!!
Atsedendiaz hitz egingo dugu?
Zubiaurre 32 (Ermua)
943 177 041



BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57
IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-



GARBIKETA ZERBITZUAK
Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es


Euskal Birusak Hartza Eguna ospatuko du otsailaren 5ean. 18:00etan irtengo da kalejira plazatik eta bukatutakoan, ogitartekoak banatuko dira parte hartzaileen artean. Aurtengo ekitaldian, Txindurri taldeak ere parte hartuko du eta inauteri dantzak eskainiko dituzte. Hori dela eta, Euskal Herriko inauterietako jantziak soinean eramateko gonbitea egin du Euskal Birusak. Bitartean, gozatu denbora-pasekin!

M	M	Z	U	P	O	N	X	S	A	B	R
A	K	A	L	E	J	I	R	A	I	Z	N
E	D	C	K	A	E	T	A	K	O	M	D
P	A	T	X	I	U	R	K	O	J	H	G
O	P	F	N	H	O	H	I	T	U	R	A
G	V	S	E	Y	D	H	V	B	K	I	A
D	T	K	I	L	K	U	G	T	U	G	M
X	K	L	R	A	K	O	P	L	A	K	D
F	Ñ	X	H	L	T	N	O	Ñ	A	B	X
M	A	Z	T	R	A	H	H	A	R	X	G

Topa itzazu
hitz hauek
letra-zopan:

Hartza
Ohitura
Kateak
PatxiUrko
Kalejira
Koplak

Hurrengo jokoan, ipini ezazu
hartzaren atal bakoitza dagokion
lekuan eta margotu gero



Hartzaren lehen koplak irakurri
daiteke jarraian, baina hitz
batzuk falta dira.
Behean agertzen zaizkizu,
baina kontuz!
Bat soberan dago-eta!!

Patxi Urkoko etorri _____
lehengo egunian esaten,
animali bat han ebilela
bazter guztiak apurtutzen,
_____ hara juateko
pizti hori harrapatzen,
inguru _____ baserritarrak
ez ebela lorik egiten,
hara joan giñen aldra _____
zer ote zan hori ikusten.
La la la lala la la la laÖ

hartako
txakurrekin
ederra
jakun
eskopetekin

EMAKUME ETA GIZONENTZAKO ZAPATAK

eua
CALZADOS

Orbe kardinalaren plaza 2 · Ermua

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Bilatu 7 ezberdintasunak ondorengo irudi bien artean



Guillermo Bengoetxea izan zen Hartzaren koplaren egilea eta Maria Bengoetxea, haren alaba, bertso horiek guregana iristea ahalbidetu zuena. Gurutzegramatik asmatuta, aita-alabaren ezizena agertuko zaizu.

ZOKKETA!!

Zein urtetan kantatu ziren estreinako aldiz Hartzaren koplak Ermuan?

Erantzuna ez baldin badakizu... topatu, bilatu, galdetu, ikertu eta daukazunean, bidalguzu mezu elektronikoz drogeten@gmail.com helbidera.

Asmatzen duzuenon artean, itxio-txio bota berriro! Ermuko puzzlearen ale bat zokketatuko dugu.



*Datorren hilean jakinaraziko dugu irabazlearen izena.

DESCUBRE-TÉ
Teak, kafeak, txokolateak, ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.es
www.teteriadescubre-te.com

Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

GABONETAKO II. FRONTENIS TXAPELKETA BURUTUZEN MALLABIAN

Urtarrilaren 9an Gabonetako frontenis txapelketaren 2. edizioa ospatu zen Mallabiko frontoian. Euskadi osotik etorritako 20 bikotek hartu zuten parte, arabarrak, gipuzkoarrak eta bizkaitar ugari, ohiko Durangaldeko eta Debarrenakoez gain. Abadiñoko Gaizka Ogiza eta José Carlos Márquezek Mallabiko Alfredo eta Iñigo Pradera anaiei irabazi zieten finala. Ismael eta Luken Pradera mallabitarak eta Iker Araiztegi eta Mikel Idigoras ermuarrak finalerdietara iritsi ziren.

MIKEL LOSADA AKTORE ERMUARRAK EMANALDIA EGINGO DU ANTZOKIAN

Caperucita feroz antzezlanaren ikusteko aukera egongo da Ermua Antzokian urtarrilaren 29an, 22:15ean. Sei antzezlek hartzen dute parte GluGlu produkzioaren lan honetan, tartean Mikel Losada ermuarrak. Hogei urte baino gehiago daramatza Mikelek lanean, eta antzerki, telesail zein pelikula ezberdinetan hartu du parte: *La voz de su amo* (1994an), *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (2006an) edota *Txarriboda* (2015ean), besteak beste. *Caperucita feroz*ek komedia, musikala eta bodebila nahasten ditu, eta bertan pasioa, dibertsioa, iruzurra eta beldurra dira nagusi.

D ereduan matrikulatzeko kanpaina abian da

Herriko ikasleek kurtso erdian badihardute ere, ikastetxeak 2016/2017 ikasturteari begira lanean hasi dira. 2 eta 3 urte bitarteko umeen aurrematrikulazio sasoia dela-eta, D ereduaren aldeko kanpaina jarri du martxan seigarrenez Euskal Birusa Elkarteak. Ekimenaren barruan kartelen pegada egin da atariz atari lelo honekin: "Matrikulatu D ereduan. Kalitatekoa, aberasgarria, integratzailea... D lako. Etorkizun eleanitzarako ondoen prestatzen dituelako!". Gaur egun bi ikastetxek eskaintzen dituzte ikasketak D ereduan Ermuan: Anaitasuna Ikastolak eta Ongarai Eskolak. Hainbat urtetan martxan dagoen ekimenarekin jarraitzeko beharra ikusten du oraindik Euskal Birusak, gurasoak euren seme-alabak D ereduan matrikulatzera animatuz.

Matrikulatu D ereduan!

Kalitatekoa, aberasgarria, integratzailea... **D** lako

ETORKIZUN ELEANITZERAKO ONDOEN PRESTATZEN DITUELAKO!

Ermuko guraso askok egiten duten moduan, zuen seme-alabak **D ereduan** eskolaratzera animatzen zaituztegu.

Euskara umeena ez ezik gazteena ere badelako, derrigorrezko hezkuntzatik gorako ikasketetan (babilergoa, Lanbide Heziketa, unibertsitatea...) aukeratu ezazue **D eredua**, bihar-etziko pertsona eta profesional eleanitzak sortzeko.



Izan zaitetz Euskal Birusaren bazkide!

Ermuaren artean euskararen erabilera indartzen jarraitu nahi du Euskal Birusa Elkarteak. "Horretarako martxan dauden ekintzei eutsi eta berriak antolatzeko asmoa dugu", dio elkarteko koordinatzaile Amaia Arriagak. Urtean 35 euroko kuota ordaintzen dute bazkideek, eta jubilatuta eta ikasleek 20 euro. Bazkide egiteko edo informazio gehiago eskuratu nahi duenak Elkartearen bulego-ara jo beharko du, Erdikokale 2ko lehen pisura, 943179350 telefonora deitu edo euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi. Bestalde, otsailaren 20tik aurrera kobratuko dira jada bazkide direnen kuotak.



Izan zaitetz Euskal Birusaren bazkide!

Orbeak 175. urteurrena ospatu zuen

Orbea bizikleta fabrikak 175 urte bete berri ditu, hori dela eta ekitaldi jendetsu bat antolatu zuten Mallabiko lantegian joan zen urtarrilaren 21ean. Iñigo Urkullu lehendakaria, Mallabiko alkate Igor Agirre eta Ermuko alkate Carlos Totorika eta Igor González de Galdeano, Pedro Delgado eta Samuel Sánchez txirrindulari ohiak egon ziren bertan.

Orbeako zuzendaria den Jon Fernándezek enpresak urte hauetan izan duen "eraberritzeko prozesu konstantea" azpimarratu zuen. Orbeako langile zen eta hil berri den Aitor Bugallo txirrindulari ohiari egindako omenaldiarekin batera heldu zen jardunaldiko momenturik hunkigarriena.





optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

“Palestinako emakume errefuxiatuen bidaia luzea” erakusketa egingo da Lobianon



Ekialde Hurbilean dauden Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziak (UNRWAK) argazki-erakusketa egingo du Lobianon. “Palestinako emakume errefuxiatuen bidaia luzea. Gazako zerrendatik begiradak” da erakusketaren izena eta bertan 15 panel egongo dira ikusgai. Horien bitartez, Gazako zerrendako emakumeen errealitatea guregana hurbildu nahi du UNRWA Euskadik: “Emakume horiek duten indarraren eta erresili-tziaren lekukotasuna eman nahi du erakusketak, baina ez dugu ahaztu behar neskatilak eta emakumeak zaurgarriagoak direla

eta oraindik lan asko dagoela egiteko”, diote antolatzaileek. UNRWA Euskadik taldeekin bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen du (euskadi@unrwa.es helbidera idatzita edo 944 346 731 telefonoan). Urtarrilaren 25etik otsailaren 7ra arte egongo da erakusketa ikusgai.

Dantzantiz eta Gurasolagun irekia proiektuak abiatuko ditu Berbalagunek urtarrilaren 29an



DANTZantiz (dantza+kirola+euskara)

Urte berriarekin batera, bi proiektu berri jarriko dira martxan Ermuko Berbalagun egitasmoaren barruan. Lehenak, Dantzantizek, dantza, kirola eta euskara uztartuko ditu: “Ostiraletan, hamabostean behin, Ermuko euskaldunei, dantzaren bitartez, euskarazko jarduera fisikoa eskainiko zaie -dio egitasmoaren arduraduna den Juanmi Bravok-. Saioen berezitasuna ezberdintasuna izango da. Hau da, estilo eta musika ezberdinak erabiliko dira saio bakoitzeko. Horrela, norberaren

gustuko saioak aukeratu ahal izango dituzte parte hartzaileek”. Urtarrilaren 29an egingo da lehen saioa, 18:45etik 20:15era Lobianon, eta guztira lau saio egitea aurreikusi da. Izena emateko, 639414205 telefonora deitu edo ermua_berba@aek.org helbidera idatzi beharko da.

Ikastaroa doakoa da eta, bukatutakoan, bertan dutxatzeko aukera egongo da. Beste alde batetik, Gurasolagun irekia egingo da hilaren azken ostiraletan, urtarrilean hasita eta ekainera bitartean (17:00etaik 18:30era, plazan edo Lobianon, eguraldiaren arabera). Gurasolagunen daudenei zein ez daudenei zuzenduta dago eta “honen helburua da guraso euskaldunak elkar ezagutzeko eta komunikazio euskaldunak sustatzea, bai gurasoen artean bai guraso eta seme-alaben artean ere”, dio Bravok. Antxitxiketan Begirale Taldearekin elkarlanean burutuko da Gurasolagun irekia, doan.



EUSKADIKO TXAPELA IRABAZI DU AITOR HERNÁNDEZEK HIRUGARRENEZ

Aitor Hernández Euskadiko txapeldun izan zen berriro ere 2015ean, Legazpiko V. Ziklokrosrean lortutako garaipenari esker. Abenduaren 27an burutu zen lasterketa hura, eta Hernándezek beste behin erakutsi zuen sasoi onean dagoela: Larrinaga eta Zubero aurkariei aurrea hartu zien hasieratik eta helmugara bakarrik heldu zen. Titulu hori irabazten duen hirugarren aldia da, eta oraingo honetan, euskal babesle guztiei eskaini zien garaipena. “Lasterketa polita izan da eta emaitzarekin pozik nago”, esan zuen. Zorionak txapeldun!



AURREKONTUAK OSATZEKO GALDETEGIEN EMAITZAK KALERATU DIRA

Ekonomia eta enplegua, familientzako laguntzak eta errepideak dira ermuarron lehen-tasanak, Udalak abenduan zabalduzako galdetegi-entzako emaitzen arabera. 146 pertsonak eman dute euren iritzia (83 gizon eta 63 emakume), eta eurek egindako ekarpen eta proposamenak kontuan izango ditu Udalak 2016ko aurrekontuak prestatzeko orduan.

T XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipirotiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

Heabaindegia

MT

MT Heabaindegia
C/ Marqués de valdespina n° 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Móvil. 688819336

Silvia Gastón Izaquirre
facebook: <https://www.facebook.com/ilaabaindegiamtxpuqueria.mt>

M I G U E L P É R E Z

- Hautzaroko oroitzape- nik?

9 urte bete arte Okinzuri-ko azken peoran bizi nintzen. Auzoan geratzen nintzelakoan, lasai egoten zen ama etxean, baina harrobiraino joan eta mendian barrera ibiltzen nintzen lagunekin. Bi pisuko txabola egin genuen Ongarain, argia eta moketarekin!

- Zerbaiten falta izan zenuen txikit?

Familia xumea zen gurea eta anaien jostailuak eta arropa erabiltzen nuen. Hala ere, denetik izan genuen, gogoan dut 4 urte nituenean erosi zutela gurasoek telebista.

- Zenbat urterekin hasi zinen lanean?

15ekin, graduatua atera gabe. Ia hamar urte geroago atera nuen.

- Zeintzuk lan egin dituzu?

Osaba igeltseroarekin egin nuen lan bi urtez, amaren janari-dendan zortzi urtez eta Frontón tabernan txitxi-burruntziak egiten urtebetez, besteak beste. 1989an Kus-Kus taberna ipini genuen etxekoek eta gaur egun Hanigans dugu martxan.

- Zer da zure lanean gehien eta gutxien gustatzen zai- zuna?

Jendearen aurreko lana gustatzen zait, baina aldi berean, urteen eraginez, nekatu egiten nau askotan.

- Tabernaria izan ezik...

Abeslaria. Zarzuela ikasketak ditut eta tenor lirikoa naiz. Abeslariak Abesbatzan 8 urte eman nituen, Pispilun



51 urte ditu, ezkondu dago eta bi alaben aita da: 18 eta 15 urtekoak. Gurasoak Kordobakoak ditu eta hiru anaien artean gazteena da. Tabernaria ofizioz, zarzuela eta masaje terapeutiko ikasketak ditu, eta marrazkigile afizionatua da.

ere, eta Ainhoa Zuazuarekin hainbatetan abestu dit. Jarreraian, Bilboko Korral Elkartarekin egon nintzen bi urtez, duela 16 urte inguru.

- Non abestu duzu?

Bilboko Arriaga Antzokian eta Euskalduna Jauregian, Parisko Champs Élysées Antzokian, Valentziako Palau de la Música, Madrileko Gerónimoen elizan, Málaga Cervantes Antzokian...

- Zergatik utzi zenuen?

Entsegu asko genituelako, denbora asko zen. Gaur egun karaoketan lasaitzen dut barrena!

- Zer abesten duzu?

Luis Miguel, Sergio Dalma, Pablo Alborán, Raphael, Nino Bravo...

- Lehiaketaren batean parte hartu duzu?

Operación Triunfo eta La Vozeko kastinetara aurkeztu nintzen. Aldi berean, ez nuen ikusten nire burua epaimahaiaren aurrean.

- Erraz haserretzen zara?

Ez, baina adinarekin izaera garrantzu zaidala igartzen dut.

- Zer ateratzen zaitu zure onetik?

Tontakeriek eta jende ahoberoak.

- Bertuterik?

Umoretsua naiz, edozein gauzari punta ateratzen diot. Ondo pasatzea eta dantza gustatzen zaizkit.

- Akatsik?

Gauzei buelta larregi ematen dizkiet eta lotsatia naiz.

- Eguneko zure momentua?

Siesta asko gustatzen zait. Nire ohean, atea itxita.

- Aisialdian?

Txakurrarekin paseotxoia. Esku ona daukat marrazteko ere eta garai batean erretratu asko egin nituen. David Bowierena dut kuttunenetakoa.

- Kirolik egiten duzu?

Trekkinga. Udan, bizikleta eta snorkela.

- Teknologian aditua?

Gustatzen zait: ordenagailua, mugikorra, programak... denbora azkar joaten zait!

- Nor gonbidatuko zenuke bazkaltzera?

Udako lagun bat.

- Bazkalostean, kafea, trago luzea, zerbeza...?

Ez naiz kafezalea. Aukeran, gin tonica edo kuba-libre goxoa.

- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Oso zaila da, baina injustiziak bukatu direla. Herriari begira, saihebideta eraiki dela.

- Zer irakatsi dizu bizitzak?

Esperientzia eta heldutasuna eman dit. Gainera, tokatu zaidan garaiarekin pozik nago, lehengo bizimoduak eta gaur egunekoak alderatzeok aukera izan dudalako.

Dorleta Vidal

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitaratekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Aitor Elordi mallabitarrak profesionaletan debutatu du

Aitor Elordi pilotari mallabitarrak profesionaletan egin zuen debuta urtarrilaren 3an Eibarren. Astelena pilotalekua leporaino bete zen, hainbat mallabitar gerturatu baitziren bertara herriko gazteari indarra ematera.

Bere lagun Aitor Aretxabaletak azken orduko deialdi bat izan zuen Sorian lehen mailako binakako txapelketan ordezko lanetan aritzeko. Beraz Aitor Irusta izan zuen atzelari gisa gazteak. Beraien aurka Yves Salaberri "Xala" aurrelari labortarrak eta Xabier Tolosa anoetarrak osatutako bikote gogorra izan zuten.

Partidari gogor ekin zioten Elordi eta Irustak lehen hiru tantoak lortuz eta jendearen algarak piztuz harmailetan. Ipar Euskal Herriko aurrelaria partidaren sartzearrekin batera tantoak pilotzen hasi ziren. "Xalak" esperientzia handia erakutsi zuen partida osoan, behar zuen momentuan dotore bukatuz ñaku eta ezker gantxoekin. Tolosak ere trinkotasuna

erakutsi zuen atzeko koadroetan, eta horrek abantaila eman zien hasieratik, Elordi eta Irusta maldan goira jarriz. Nahiz eta jendearen aupada ez zuen falta izan, ezinezkoa egin zitzaion aurrelari mallabitarrari azkenaldian erakutsi duen joko azkarra erakustea bere erremateekin. Azkenean 22-13ko emaitzarekin bukatu zuen partida.

Garaile Bilbon

Hurrengo astean, Bilboko Bizkaia frontoian, garaipenaren ezti zaporea dastatu zuen ostera Elordik. Tolosa oraingoan atzelari modura eduki zuen, Retegi II eta Urruzola mendean hartzeko. Oso bizi joan zen lehia non aurrelarietako bukatzeko aukera asko izan zituzten. Mallabitarrak oraingoan bai lortu zuen bere



eraso joko erakustea koadro alaietan. Partida gogorra izan zen hura. 22-20ko markagailu estuaz bere lehen garaipena profesionaletan. Askotariko aurrena, alegia. Miribillako partidua horretan berezitasun modura Aimar Olaizolak jokatu zuen Elordiren ostean, txikitatik miresmen handia izan dion pilotaria. Laster bere aurka lehia aritzeko parada izango du.

Pilotari bezala hobeto definitzen duen adjektiboa *zuzena* da. Ez da tantoa leun garatzen duen aurrelari horietakoa. Aukera izan bezain

pronto bukatzen saiatuko da Aitor. Ez da inoren aurrean samurtuko, betidanik izan du itzelezko konfiantza bere jokoa. Bi esku finak aireko jokoa ondo dominatzeko eta abilezia izugarria aurkaria helduko ez den zirrikitan jartzeko pilota. Defentsan gorapen nabarmena egin duen arren, azkenaldian oraindik ere aspektu batzuk hobetu behar ditu. Afizionatu mailan dena irabazi ondoren, 19 urterekin bidea du idaztear. Mallabia Euskal Herriko pilotaren mapan jarri du berriz. Etorkizuna esku egokietan dago.

Paul Bustindui



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

es
egolek
*electrizitatea
iluminazioa*

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

**Aholkularitza
juridikoa**

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Nola eta noiz hitz egin sexualitateaz seme-alabekin?

Lehenengo urratsa, bakoitzak bere buruari galdetzea da zer ulertzen duen sexualitateaz, erantzun horren arabera sexu heziketa mota bat edo beste egingo dugu-eta. Batzuentzat, sexualitateak gaixotasunekin eta haurdunaldiekin zerikusia du soilik, kasu horretan ikuspuntu erredukzionizta eta koitela transmitituko diegu gure seme alabei, beldurrean hezituko ditugu: "Kontuz haurdunaldi eta gaixotasunekin, kondoia erabili!"

Aldiz, badago sexualitatea ulertzeko beste modu bat, aniztasunaren ikuspuntutik. Sexualitateak, besteak beste, gorputzekin, afektuekin, desirakin, gorputz aldatetekin, sentimenduekin... du zerikusia. Hitz hauek guztiak komunean dutena pluraltasuna da,

hemen gakoa. Pertsona guztiak desberdinak gara -ume, nerabe, gazte zein helduak-, bakoitzak bere gustuak ditu, gozatzeko era asko daude eta, noski, pertsona guztiak bakarrak eta errepika ezinak gara (eta erakargarriak gehituko nuke, noski baietz!). Eta horixe da gure txikiek barneratu behar dutena. Orduan, noiz egin sexu hezkuntza umekin? Argi dago, sexualitatea modu honetan ulertzuz gero, txikitatik egin dezakegula, baina urrutiago joango gara...

Dagoeneko, guraso zareten guztiok haurra jaiotzetik (eta aurretik baita) egin duzue sexu hezkuntza zuen seme-alabekin. Horiek mezu asko jaso dituzte sexualitatearen inguruan. Batzuetan esaten dugunaren bitartez, beste batzuetan, isiltasuna eta ezkututzen duguna-



Nahia Rojo

Psikologoa eta Sexologoa.
'Desirak' Sexologia eta Generoa

ren bitartez (zenbat esaten dugu, ezer ez dugunean esaten!). Egunerokotasunean hori ikusten dugu: familia bat telebista aurrean dagoenean eta kanalez aldatzen dugunean galdera deserosoak saihesteko; edo galdera botatzen dutenean, oraindik txikiak direla eta nagusiagoak direnean erantzungo diegula esaten diegunean edota haurdun geratu, eta neska edo mutila bada gela modu batean edo bestean apaintzen dugunean.

Familiantzat lagungarri izan daitezzen gomendioen artean, naturaltasuna, sexualitateaz hitz egiteko prest egotea, seme-alabei konfiantza adieraztea eta gertarak aurreratzea daude.

“ Sexualitateari dagokionez, zenbat esaten dugu, ezer ez dugunean esaten! ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ALOKAIRUA

Pisua alokatzen dut
Zubiaurre 24an.
Bi logela ditu.
© 648 64 37 15



Otsailaren 5ean
Zorionak Luka zure
3. urtebetetzean.
Muxu handi-handia,
amatxo, aitatxo eta
Samuren partez.
Asko maite zaitugu
"Triki"!!



Urtarrilaren 12an
Zorionak gure etxe-
ko pailazo txikiari
eta muxu potolo bat
familia guztiaren
partez.



Otsailaren 7an eta 10ean
Zorionak Peio eta Paco familiaren
partez. Besarkada bat.



Urtarrilaren 25ean
Zorixonak Aitor!
Aurten bi urte! Musu
handi bat guraso eta
aitxitxa ta amamen
partez!



Urtarrilarean 21ean
Zorionak Aiur!!!
Musu handi bat
famiariaren partez.
Ondo pasa
txapeldun!



Otsailaren 8an
Loreak mendian,
perretxikoak basoan
eta zu bezalako
mutila gure bihotze-
an. Zorionak Luken
zure 7. urtebetetze-
an, aita, ama eta
Aialaren partez.

Hurrengo
zenbakirako
azken eguna:
OTSAILAREN 17a

Santa Agedako kantuak prestatzeko entseguak


Aurten ere, Santa Ageda bezperan, herritarrak abestera irtengo dira Ermuko kaleetan barrena. Aurretik bi entsegu antolatu dituzte ekimenaren antolazailleek: urtarrilaren 26an eta 28an, Alboka musika eskolan, 20:30etan.

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, 18:15etan hasiko dira kantuan Abetxe Eguneko Zentroan. Abestien artean mokadu bat egongo da Ongaraiko Eguzkialde elkartean eta, bukatutakoan, afarria Urdiñak elkartean. Nahi duen orok parte hartu ahal izango du bai entseguetan bai kalejiran.



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

GINEKOLOGA
M^a Jose Ruiz de Porres dk.

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

PARTIKULAR ETA ASEGURU-ETXEAK

IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON,
Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsaa,
Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

RADIOLOGIA MADINA
Toribio Etxebarria, 4-1 ezk. 20600 EIBAR

(2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan

Telefonoa: 943 20 28 57

MALLABIA 1936

Argazki hau 1936ko Sanjuanetan, Goita auzoko Ortuzar baserrian aterata dago.

Bertan agertzen dira:

Goiko ilaran: Juan Zabala, Eustakio Markina, Matilde Ciarso, Martina Ciarso, Josefa Ciarso, Vicente Urzuriaga, Claudio Ciarso.

Beheko ilaran: Teresa Ciarso, Mari Cruz Ciarso, Eustasio Markina umea, Gregoria Amillategi, Tomasa Ciarso, Santiago eta Maritxu Urzuriaga umeak, Gregoria Alberdi eta Josefina eta Eustakio Ciarso umeak.



ERMUA 1971



“Recordando homenaje al jefe de la Pala. 8-11-1971” dio atzetik argazki honek, Felix Izagirre pilotariari egindako omenaldiaren gomutaz. Ezkerretik eskumarutz, ezagunen artean, Terito, *O sastre pequeno* bezala ezaguna zen jostuna, Félix Izagirre, Félix Arrarte eta Ignacio Alberdi. Erdikokalen dago aterata argazkia, Bodega Riojana edo Pepen bodega legez ezagututakoan, Pepe Moreno zenteta bertako ugazaba. Gaur egun Sirimiri izena du.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

2015eko ekainean abiatu zuen Udalak Hiribili ekimena: zirkuitu osasungarrietan, balizetan eta silikonazko eskumuturrekoetan oinarritzen dena. Parte hartzaileek zirkuitu osasungarri bat egin eta bere eskumuturrekoa baliza batera gerturatu behar dute. Horrela, egindako ariketa fisikoaren gaineko datuak jasotzen dira. Datuok medikuari bidaltzen zaizkio gero.

Zer dakizu herriko leku ezberdinetan dauden balizei buruz?

Silikonazko eskumutur horien berri izan duzu?



Elizako bilera batean komentatu zidan katekista batek, baina ezer gutxi dakit: eskumuturrekoa udal txean eskatzen dela eta kilometraje bat egin behar dela. Ez dut erabiltzen duen inor ezagutzen eta uste dut azkenean bakoitzak bere gustuko ibilbideak egiten dituela, baliza horietatik igaro barik.

Inmaculada Gereño, 63 urte



Uste dut baliza horiek seinalizatu egiten dituztela kirola egiteko leku aproposak. Ez nuen proiektua eza-gutzen, baina zuk azaldu eta gero, uste dut eraginkorra izan daitekeela kirola sustatzeko, norberaren emaitzak neurtzeko aukera ematen duelako. Kirola gustuko dut eta beharbada probatuko nuke.

Diego Isidro, 23 urte



Ez daukat ideiarik ere ez. Balizak ikusi ditut, baina ez diet kasurik egin; korrika egiten dutenentzako direla esango nuke. Ez dut erabiltzen duenik ezagutzen. Ni egunero joaten naiz ibiltzera, baina nire kabuz, kostatu egiten zait gauza berrietan parte hartzea.


Rosa Alonso, 62 urte



Korrika egiten dutenentzako dira, euren lana neurtzeko. Ez dut erabiltzen duen inor ezagutzen, baina martxan ipintzen diren ekimen guztiek onurak ekarriko dizkigutela uste dut. Nik ez dut probatuko, txakurrarekin paseotxoak egitea gustatzen zait, edo Eibarreraino oinez joatea, nire kabuz.

Antonio Jiménez, 65 urte

Tasio eta Sabino



- Medikuak nire eskumuturrekoaren emaitzak ikusi, eta gaztetxo baten moduan nagoela esan dit!

ZINEA

6tik 8ra
 13tik 15era
 20tik 22ra
 27tik 29ra
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film eta
 ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 4
 Hilak 11
 Hilak 18
 Hilak 25
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7
 Hilak 14
 Hilak 21
 Hilak 28
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film.
 17:00etan

MUSIKA

Hilak 4:
 Agata Deunaren kaleji-
 ra. 18:00etatik aurrera.

Hilak 14:
 Extremadurako musika
 eta dantza jaialdia.
 12:30ean. Ermua
 Antzokian. Sarrera
 dohainik.

Hilak 20:
 Blues kontzertua: Animal
 blues. 20:00etan.
 Lobiano Kultur gunean.
 Sarrera: 8€

Hilak 27:
 Flamenko musika eta
 dantza jaialdia.
 17:00etan. Lobiano
 Kultur Gunean. Sarrera
 dohainik.

ANTZERKIA

Hilak 19:
 "La guerra del sofá",
 Lola Baldrich eta Gorka
 Minguezekin.
 22:15ean. Ermua
 Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 26:
 "Heroiak", Txalo
 Produzioen eskutik.
 22:15ean. Ermua
 Antzokian. Sarrera: 10€

ERAKUSKETAK

Hilaren 7ra arte:
 Argazkiak: Palestinako
 emakume errefuxiatuen
 bidaia luzea.

Hilaren 22tik 6ra arte:
 Margoa: Nagore
 Rodríguez lanak.
 Lobiano Kultur Gunean.
 18:00etatik
 20:00etara.

UMEENTZAKO EKITALDIAK



Hilak 27:
 Haurrentzako antzerkia:
 "Zapatila gorridun muti-
 koa", Ados Teatroaren
 eskutik. 17:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 4€

Patxi López

INAUTERIAK

Otsailak 4, osteguna. Eguen zuri.
 -15:30ean: Oilarraren jokoa.
 -17:00etan: Diskofesta:
 Xaibor Dja.

Otsailak 5, ostirala. Hartza eguna.
 -18:00etan: Kalejira
 Orbe Kardinalaren plazatik.

Otsailak 6, larunbata.
 -12:30ean: Kalejira:
 Irulitxa txaranga.
 -12:30an: Kalejira:
 Txindurri taldea.
 -17:30ean:
 Haurrentzako txokolatada.
 -18:00etan: Haurrentzako
 erromeria: TTR taldea.
 -19:00ean: Kalejira:
 Irulitxa txaranga.
 -19:30ean : Haurrentzako
 mozorro lehiaketa.
 -23:00etan: Dantzaldia:
 Nueva Generación orkestra.

Otsailak 9, asteartea.
 -16:00etan: Haurrentzako
 diskoteka.
 -18:00etan: Kale ikuskizuna:
 "Asmakizun asmatzaileak".
 -19:00etan: Kalejira:
 Ustekabe txaranga.
 -23:00etan: DJ Festa Oihan
 Vegarekin.
 Ekitaldi guztiak Orbe
 Kardinalaren plazan.

**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian
 tokiko**

PRO

-ARRAINDEGIA
 -ITSASKIAK
 -ARRAIN FRESKOAK ETA
 IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
 OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
 " 17 24 33 (etxea)
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
 ERMUA

**Infreñu
 Taberna**


Kardenal Orbe plaza
 943 174584
 www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



Maite Carreras
Ingeniaritza elektronikoa
*Ikasle ohia eta ingeniaria
AIRBUS-en.*

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO • URTARRILAK 30

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ARRASATE • OTSAILAK 13

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • URTARRILAK 30

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

OÑATI • OTSAILAK 4

OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

BILBAO • OTSAILAK 6

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORITZA • OTSAILAK 13

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETA • OTSAILAK 13

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA • OTSAILAK 11

OSTEGUNA, 18:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

#erronkarakoprest



**mendi irteerak, federatzeko tramiteak, liburuak, mapak
mendiko materiala, ikastaroak, kainoak, rafting
argazkiak eta... giro bikaina!!**



<http://artarrai.blogspot.com/>

<http://www.artarrai.com>

artarrai@euskalnet.net

ostegunero, 19:30etik 20:30era liburutegiaren gainean